



Kaixo, lagunok:

JOSE LUIS de la **MATA**ren heriotzaren/bizitzaren **XII. URTEURRENA** beteko da otsail honetan. Horren ondare emankorra, horren lan eskerbaren fruituak lagun ditugu gure eguneroko bizitzan: eraiki zuen eskolakoak gara eta berau babeslekuatzat dugu; sistematizatu zuen ekoizpen teoriko-praktiko aberatsak modelo iraultzailea gauzatu zuen gure osasun-lanbiderako; eguneroko bizitzan eta politikan, harremanak eraiki eta zaintzeko zuen modua erreferentzia etikotzat dugu. Jose Luisek eta, jakina, Teresa Gilek gure prozesuak sostengatzen eta elikatzen jarraitzen dute, Historiatik gure izatearen historiara.

Hori dela eta, Jose Luisi gure omenaldia eskaini nahi diogu eta gure eskolarentzat, **IZARGAIN**entzat, hain esanguratsua den data hori gurekin gogoratzeko, Aresoko **ERASONEA-DE LA MATA**ENEAn egingo dugun ekitaldian parte hartzera ere gonbidatu nahi zaituztegu: **otsailaren 24an, larunbatean, goizeko 11etan**.

2017-18ko ikasturte honetan zehar, www.joseluisdelamata.com web-orria aberasten ari da Jose Luisen testuak aztertzeko **Izargain-DelaMata**ren Eskolan astero garatzen ari garen **www 10. Mintegiarekin**.

Mintegiaren testuinguruan, Jose Luisek, aurten berriro ere, antzerkiaz gozatzera eramango gaitu. Guztion artean, **Mirabal aizpak** hezurmamituko ditugu: Errepublika Dominikanako Trujilloaren erregimen kontrako militanteak izan ziren eta, diktadoreak aginduta, 1960ko **AZAROAREN 25**ean erail zituzten. 1981ean, Latinoamerikako mugimendu feministak erailketaren data hori aukeratu zuen **Emakumearen kontrako Indarkeriarik Gabeko Nazioarteko Eguna** ospatzeko. **NBEk** sensibilizazio-egun aldarrikatzaile hori bere egin zuen 1999an.

Ekitaldia bukatu eta gero, mokadu bat hartuko dugu etxean eta, ondoren, **bazkaria** egingo dugu. Bazkaltzen geratu nahi duzenok, mesedez, abisua eman e-mailen bitartez **otsailaren 23a baino lehen: ulumago@hotmail.com**

Areson ikusi arte, gure agurra eta besarkada har itzazue.

DE LA MATAENA
Izargain-Areso
2018ko otsaila

**Mirabal
aizpak,
TXIMELETAK**

